

# ZARR

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
14 n. ZENBAKIA

URRILLA  
-1978-

## LEGE ZARRAK GOMUTATZEN

(Zeanuri'n)



---

***Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaite.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egiteko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO  
AURREZKI KUTXA**

*Geroa, bertan daukagu.*



# BERGARA'N ZELAN?

Bergara'ko Batzar Nagusiari buruz, azkenengo ZER onen zenbakian gure zalantzan agertzen genduzan eta, itxaroten genduan lez, olantxe bete zan gure igarle-berbea. Ondo da-kigu nortzuk diran eta olakoetan uts egitea ez da erreza gutzak.

Dana dala, berotasun barik eta gogo aztertzailleaz egin dagigun an izan ziran alderdi onen eta txarren neurketa edo zenbaketa laburra.

## ONAK

- Euskereari buruz Batzar aundi ta zabala egitea bera, lenengo ta bein, gauza ederra ta txalogarria da.
- Eta euskerea ikaste ta sakontze onetan, ipar eta egoaldeko idazle ta euskalzaleak, irakasle ta izlariak alkartuta, Euzkadi'ren batasuna nabarmendu dabe.
- Olako batzar aundi baten, itz bat be erdera egin barik, dana euskeraz adieraztea gauza ederra eta aurrerapen aundikoa da.
- Erabilli zan euskerea, geienetan ederra ta garbia zan, eta atxea iparraldekoak izan ezik, iñork ez etan lez oguztuten edo agozkatzen, sarritan batua izan arren, ezin ukatu, euskera ederra egiten ebela izlariak eta entzuleak.  
Itz egin nai izan eben guztiai entzun jaken, eroapen aundiaz, une bitan izan ezik, naiz gero jaramonik ez egin.  
Entzuleak egunero batzuk ziran, geienak beintzak, egun batzutan ugaritu eta beste batzutan urritu egiten ziran baiña geienak betikoak. Gogotsu entzuten eben, itzaltasunez egoten ziran, geiegi txalotu barik eta guztiak aintzat artuez.  
Alderdi bien artean bakea egiteko, erdi-bidekoak aletin aundiak egiten ebezan, berbaz eta egitez.
- Trebe-aldeetik begiratu ezkerro, naiz ta uts txiki batzuk izan, ondo eratuta egoan: itzaldien idazkiak, altabozak, idaztola...  
Itzaldi bakoitza idatziz entzuleai emotea, txalogarria izan da, itzaldi guztietan, baiña batez itaunketearen saillekoetan.
- Batzarkideen artean, aretotik urten ondoren giro atsegingarria agiri zan, eretxi er-bardiñak izan arren alkar gizonkiro onartuaz.

## TX ARRAK

- Eratzaille lez eta izlari-aukeratzaille lez, Euskaltzaindia bakarrik agertu zan eta lan au beste euskal-talde batzukaz alkartuta eginbearrekoa zan, batasuna egin bear ba'zan beintzat.  
Alderdikeria nabarmena zan: batzuk egindako batua eta bere aldekoak ziran an dana, eta beste eretxietakoak ezer ez, baztertuta.
- Orregaitik izlariak eta eritxi-emoilleak geien-geienak alderdi batekoak ziran, eta beti batzuk.
- Egitarauan bertan, erri-bideko euskereak itzaldi baten bakarrik izan eban itz egiteko erea eta anbe beste lau edo bostegaz nastean eta alkar-izketa barik.  
Idazkiai begira egin ziran azterketa guztiak idazle zarrenak eta iparraldekoenak izan diran, oraintsuagoko eta egoaldeko idazlerik ez zan aztertu.
- Batzarreko egitaraua gitxi ta berandu zabaldu zan.
- «Bai euskerari» ekiñaldiak ainbeste diru batu izan arren, an dana ta ondo kobrau zan Bakerako bideak itxaroten ziran baiña bide orretatik oinkadarik laburrenik ez zan emon. Eratzailleak eurena baiño besterik ez eben kontuan artzen. «Konponketarako biderik ez egoala, orretarako berandu zala» esan ebanak, ba ekian zer esaten eban.  
—Euskaltzaindiaren batzarraren agiria irakurri zan amai-orduan. Agiri otza ta illuna. Ez da ulertzen zer esan nai dauan eta ez diño 14 euskaltzainen artean iñor aurka jarri zan edo eztabaidarik izan zan.
- Euskaltzaindiaren «amor ez emate» orrek, euskal-idazle ta izlariak erdibitzeko bidea sortu eban eta beste Euskaltzaindi bat, erregearena barik erriarena, sortzeko arriskua agertu zan.

\* \* \*

Orra or, labor-labor, zeaztasun batzuk. Guztiak kontuan dirala, ongarri ala kaltegarri batzar nagusi ori? Euskaldunai pentzau-azoteko izan ba'da, ongarri.

# ZAIN UMEARO GARRANTZITSUAGO?

ZENTZUN BAKO AITORPENAK.—Ezagu-  
nak ditugu irekaskitzako mailak, baiña sarritan  
ez dakigu zein mailak dauan garrantzirik geien.  
Esate baterako, eskolaurreari geien baten ez  
jako jaramon aundirik egiten.

Ain urte gitxiko umetxoak ikustean, sentzu  
asko bako aitoren ugari egiten dira: «Koitauak,  
onek zer egingo dabe, ba», «egon egitea be naiko  
egiten dabe», «onekaz ez dozu buruko min aun  
izango» (antza, txikiakaz ibilli ezker ez  
dago ordu tik sartu bearrik), eta abar, eta abar...

• \*

LENENGO LANA.—Jende ezjakiñengandik  
onelakoak edo antzerako beste esaldi batzuk entzu  
cia.

Baiña ez cia ain ulerterreza ikastetxe askotan  
jokabide ori jarraitzea.

Ikusten danez, sarritan irekaskintza edozein  
bulego batetako lanagaz bardintzeraiño eltzen da  
jende asko eta asko.

Onela, bulego batetan sartzeko zerbait gertatu  
eta jakin bearra izaten da, eta geien baten, sartzean,  
garrantzi aundi bako lanak egiten asten da bat,  
apurka-apurka eta urteak igaroz ardura geiagoko  
eta dirubide obeko lanak artuaz.

Pentsaera onegaz irekaskintzara jo ezker, an-  
tzerako bat gertatzen da: ikasketak amaitu ondo-  
ren irekaskintzan asi nai izan ezker, eskolaurreko  
edo leen mailatan sartu bear.

Zergaitik? Ba... txikiak aundiak baiño garran-  
tzi gitxiago dabelako (askoren ustez).

\* \* \*

IKASGELA UMETSUAK.—Ona emen gizar-  
teak sarritan izaten dauan utsa: bulego-pentsaera  
batez umearoa epaitzea.

Pentsaera onegaz egindakoak ditugu izan be  
ain umetxo ugariz ornidutako ainbeste eta ain-  
beste ikasgela.

Pentsaera orregaz esandakoak leen aitatu di-  
tugun esaldiak eta antzerakoak.

Baiña... non asten da gure bizitza? Zartzaroan  
ala umearoan?

Umearon eziketa jaiotza aurretik asi bearra  
ez al dago, ba?

Ez gaitez an asi etxea tailutetik egiten.

\* \* \*

OIÑARRIA.--Umearoko urte bakoitzak clau  
bere garrantzia, eta au ezin uka.

Baiña zenbat eta gazteago izan, umeak ardu-  
ratsuago artu bearra dagola argi dago.

Umearoa (eta umearo barruan leenengo urte  
gitxi batzuk) geroko bitzitzaren oiñarri dogu, eta  
irekaskintzan bertan be lege au zaindugarri dogu.

Leen-urteetan umeak izan dagikezan utsak  
zuzendu eta eragazpenak gaindu ezik, osteko ur-  
tearotako ikasketetan be ez dogu ain ondo ikusiko.

Beraz, urte oneitako irekaskintzak bere ga-  
rrantzia dau, askok uste dabena baiño aundiagoa.

Eta pentsaera onetan oiñarritu ezker, zer  
esanik ez orretan diardugunok eta gurasoak an-  
dura geiagok eta teknika obez jabetu eta jokatu  
bear doguna. Bestalde (esatea gogorra bada be),  
ume asko eta asko ikasketetarako gauzeztanduta  
itzi dagikeguz.

\* \* \*

UMEARO GOGOR BAT.—Bost urte bete-  
tzean, umeak beretzat gogorra eta arriskutsua  
daan egoera bateri aurpegia emon bearra izaten  
dau.

Urte orreitan, eskolaurreko Bigarren mailako  
irekaskintza eta ikaskintza norgeiagoka batetan  
sartzen dira.

Umeak azkenaldi batetan izkiak ezagutu eta  
irakurri bearra izaten dau, 6 urtez E. G. B.-ko  
leen mailara sartzean irakurria eta idatzia uler-  
tzen jakin dagian.

Irekaslearen ardura aundiko lana bada, ez cia  
gitxiagokoa umearentzat.

Une onetan umeak bere burua norgeiagoko  
ikasketetan sartuta ikusten dau, eta atzeratuta  
edo beste aiña aurrerakuntza ez dauala egiten  
ikustean, konplejo berezi batzuk sentitzen asten da.

\* \* \*

ZERGAIK KONPLEJO ONEK?—Arrazoi  
oso ezbarñak aitatu daitekez: umeak leen ikasketak  
edo irakurketak egiteko eldutasun bat bear izaten  
dan (izkiak eurak ezbardintzeko, esaterako), eta  
eldutasun orretara batzuk besteak baiño beran  
eltzen dira.

Ume danak ez dira argitasun bardiñekoak,  
baiña eldutasun orretara eltzekeo gazteegia izatea  
be izan daiteke: umearo onetan ille batzuk zaa-

rrago edo gazteago izateak alde aundiak sortzen ditu talde barruan.

Eldutasun ori barik umea aurrera igarotzean, arazo gogorragoekaz aurkitzen da, eta atzerakuntza sentitzeraiño eltzen da.

Sentipen onetan bere burua tentelagotzat jotzen asten da.

\* \* \*

**ONDORIOAK.**—Atzerakuntza orrek umearengan. sortutako ondorio ezaugarri batzuk oneik dira; tripalak, bota-naiak, negarrak, ikastetxera joateko gogo-ezak, txixa egiteak, asmaketa bereziak, eta abar, eta abar.

Baita ba dira ixillean euren samintasuna jasaten dabena, ume ixil eta itunak, ez liburueterako ez jolasarako diranak, eta au sarritan ez da ohea izaten.

Bai arek, eta bai onek, asierako atzerakuntza au egoki gaindutzen ez badabe, ikasketak gorrotatzen zera edo bat be ez arduratzen eltzeko arriskuan aurkitzen dira.

\* \* \*

**GORROTOAREN BESTE ARRAZOI BAZUK.**—Norgeiagokako irekaskintza batetan, ikasketak «ritmo» batetan sartu bearra izaten dabe.

«Ritmo» orren elburura ez dira danak eltzen.

Atzeratuak bizitza guztirako atzeko izateko arriskuan aurkitzen dira.

Asko ete dira arriskuz onetan? Ainbat.

Sei urtez irakurtzen eta idazten dabena ulertzen, % 30 inguru eltzen dira; beraz, % 70-ek arrisku ori dabela esan dagikegu.

Asieran gaindu ezeko arazoakaitik izango dira sarritan osteko gorabera asko eta asko.

Bestalde, legez, E. G. B.-ko leen mailan sartzean, irakutzen eta idazten dabena ulertzea eskatzen jake umei.

Bearrezko eldutasun ori, oster, 6 urte t'erditik 7-ra bitartean eltzen jake.

Onetan legea eta umeen eldutasuna ez clabiltz bateratsu.

Esandakoaz gaiñera, ikasgela jendeztatuegiak be onetan euren errua dabe.

Sarritan uste izan ez arren, umea au askoz be ardura geiagoz landu bearrekoa dogu.

Zer esanik ez, eskolaurretik E. G. B.-ra igarotzeko ikastetxe aldakuntzak be zer ikusi berezia dabena.

Aldakuntza onetan umeak galduta aurkitzen dira eta euren atzekuntza jasaten dabe.

Eta azkenez, irakaslearen izkera eta liburuak eurak be atzerakuntza orren errudun izaten daitezke.

Etxeko ez jakozan gaiak eta itzak ikustean eta entzutean, umea galdu egitea cia eta, beraz, atzerakuntza orren susterrak sartzen ari gaiakoz.

\* \* \*

**ARRISKUAREN GARRANTZIA.**—Guzti au irakurri ondoren, nor ukatu dagike leen-umea-roaren garrantzia eta arriskua?

Utsak asieran zuzentzea lakorik ez dago, osteko ikasketetako problemekaz topo egin nai ez badogu. Ikastetxeetan umea oni gaur arte emoten jakon garrantzia baiño geiagorik eman ezik, ainbat bizitza desegin daiteke.

**LEGARRETA'TAR JOSU'K**

- 
- **Ikastola-aurreko aldiari buruz, zentzun-bako autorpena: «Koitauak! Onek zer egingo daba ba !»**
  - **Txiki oneikaz ikastolan egiten dan lana ez da garrantzi-bakoa, euren bizitza guztirako oiñarria baiño.**
  - **Adin onetako umeakaz talde aundiegiak egitea, parkatu-eziñeko uts kaltegarria da ikastoletan.**
  - **Eskola-aurreko bigarren maillan garrantzi aundiko aldakuntzak egiten dira umeagan aldi laburrean eta adin orretan sartzen dira «konplejo» asko ta asko.**
  - **Adin orretako eziketa okerraren ondorena, ume batzuk ixillean jasan arren, beste batzuk gorputzeko gaisoetan erakusten dabe eta guztientzak bizitarako zauri bat izaten da.**
  - **Sei urterako, idazten dabena ulertzen % 30 eltzen dira. Azitzaillea ona ez ba'da, beste % 70'ak arriskuan dagoz.**
  - **Irakasleak eta liburuak darabilen izkuntza ta berbak ez ulertzeak, emen ondoren kaltegarriak dakarz.**
  - **Olako utsak, maitetasunez eta trebetasunez, zuzentzeko aldi egokia auxe da. Gero berandu izango da.**

# EUSKERAZ'KO IDAZTI BI

**EUSKERA GARBIZ.** — **zorionez,** euzkeraz'ko idazti bi baño geiago dira azken aldian argitaldu diranak, irakurle maïtia, eta beraz ez arritu idazburutzat artu doguzan izkiokaz, berorren esan gurea besterik da-eta.

Bai, esan dogunez ainbat euzkeraz'ko idazti argitaldu da azken-aldian, baña, irakurri barri doguzan bi oneik ba'dabe oso txit garrantzia ain euzkera naste mordollo ta asmatuzko euzkera, alderdi guztietatik iruntziaz dauskuenean.

Idazti bi oneik darabilen gaia, guztiz da bardingea, bada, bata euzkal elertia izanik, euzkal idazle, euzko izparringien bitartez euzkera gaitik egin dana gaitzat dabillena bada, bestea euzkerazko ele-berri bat da.

Baña, biak, bakoitzak bere tankeran, giputx-euskalkia oñarritzat artuta, euzkera garbi argia, ulerkorra ta aberatza, ain aberatza aspaldiz aztuta daukaguzan esakera ta itz jator asko geure oldozmanera dakarguezan aberaztasunez idatzita dagozan idaztiak.

Lendik Euskaltzaindiak, «Real Academia de la Lengua Vasca» izan baño askotaz lenago erabagi-ta aurkitzen zan euzkera batuan idazti-ta dagozanak.

\* \*

**AITA SANTI'RENA.**—**Idazti** barri oneik ez dira besterik Onaindia'tar jagoba Aita (A ita Santi) guztiz ezaguna'ren «V Euzkal Literatura» ta, ain ezaguna, idazle lez, ez dan zubiri'tar Iñaki'ren «Oroitza».

Onaindia Aita'ren «Euskal Literatura» idaztiak zelangua edo zelango tankeran idatzita dagozan ez dogu esan bearrik, bada, orainguz bost dira argitaldu diranak eta, orain artekoak lez gipuzkoera batuan txukun idaztiak diralako, bere idazti guztiak lez, nai z gipuzkoeraz nai z bizkaiera utsean idaztiak izan, ni baiño idazle azkarraguk esanda dagoan lez.

\* \* \*


**ZUBIRI'RENA.** **Ezkadit** Iñaki'ren **OROITZAK** idaztia berak lenengoz idatzitako idaztia dan ala ez, baña benetan atsegin yakuna bai.

Bere esanaldiak, ipuin antzerako zertzelada luze baña bikaiñak, aldi bateko Mogel'en «Peru A barka» idazti txairua gogoratuazoten dauskenak eta. lenago esan dogunez, euzkera garbi ta ulerkorra nai-ta aberatza dan da azturik aurkitzen diran euzko itz jator asko darabiltzalako bere idazketa mamitsuan.

Egiz, ez-genduban uste «A giñalde'ko Txepetxa» orrenbesteko egakada goralgarririk egiteko gertuta aurkitzen zanik.

Beyoa gure agurrik anaikorrena idazti bikain orregaitik.

\* \*



**GIPUZKERA BATUA.** — Erakutsi ederra benetan Aita Santi eta Thaki'keuren idazti ederrakin emoten dabena, antziñatik Euskaltzaindia'k erabagitan arturik eukan gipuzkera-batua ibilliaz emon dabena!


Ez-eguan ez asmatuzko euzkera mordolloren bearrik euzkera «batua» egiteko, benetako batasuna eginda aurkitzen zan aipatu doguzan idazle orrein idazkera erdutzat artu ezketiño.

Gaztelarrak Cervantes'en idazkera, inglandarrak Shakespeare edo doitzarrak Lutero'nak artu ebezan antzera, baña, euzkotarron artean doguzan «jaun-Goikotxuak...» edo Satanastxuak dabe nai oñork erakutsi dagitsen, ta askotaz zaillagua izan erriarentzat, eurek «irakatsi» nai dauskuena, Zenbat errazagua dan lenaoa orraztu ta landutea, barria, asma.tuzkoa, gitxi batzuk ulertu ezin dabena ikasten baño...

Euzkera txukuna, urten zaite Errira!

**ALTUNA'TAR JOSU**

«BASA JAUN» BK



IKASTOLETARAKO IKAS-LIBURUA

## AKELARRE'N

**EZKONGAL**—Bidabe zarrari, gazte zalarik, besteai lez, ezkontzeko gogoia etorri yakon. Eta bere anclregaiak, sorgin usaia.

Lamia, sorgin edo zan zalakoa, Bidabe'k gogokoa eukan bere Kattalin bai, eta nai ta naiez, arekin ezkondu bear ei eban.

Arratsalde batez, bere gaia eta aren gurasoak ikusten abiatu, eta edergaillu polit-polit bat erorian berarekin, ainbat eta ainbat maite eban Kattaliñentzat: egoki asko egindako oiñetako panpipanpiñak. Berarekin artu ebazan liztari, untza txiki, maillu ta eztena, ... oski fin areek maitañoaren oiñen neurrira ekarteko.

Luzaroegei egon zan arekin txutxu.pu.-txuka nunbait, eta berandu egin yakon. Arrats illuna zan arrats a, eta etxekeokin itz emon eban su.kaldeko mai gaiñean lo egin, eta argitu orduko alde egingo ebal.

\* \* \*

**KATTALIN, SORGIÑA**.—Etxun eta, lo goxo-goxo geratu zan. Gaberdi-gaberdian, soiñu bereizi batek itxartu eban. Ez zan maictik mugidu. Ozta-ozta begiak zabaldu. Eta ona non, ikusten dauan bere Kattalin sutondoan.

An, neskeak laratzeko arria jaso, zelan-alango gantzuz beteriko lapikotxoa artu, eta beragaz igurtzen dau gorpu.z guztia, eta gero ke zulotik gora abiatzen da.

«Orain ba-dakit zer oillanda dodan nire Kattalin», bere kautan esan eban Bidabe gaixoak, aren gantzu bera eskuratu, aren antzera gorputz gustia igurtzi, ta kezulotik gora doa bera be.

\* \* \*

**BATZARRA**.—Zabaldi eder batera eldu zan noizbait, eta an iñoiz ez bezalako batzarra ikusi eban.. Lagun asko aurkitu eban bertan Bidabe'k. An egoan bere Kattalin, zira gorritz jantzita, polito. Ez ertson baiña Bidabe'k itziki egin. Zoko batera baztertu, eta an kirifioren antzera latz eta kuzkur geratu zan.

Gauza asko ikusi ta ikasi ebazan, gau artan, gure gizonak...: eta lizar-azalaren aalak eta ezpel makillaren almenak., eta sator odolaren doaiak eta giltz-zulotik sartu-urtekereak, eta ixil-gordeak, eta...

Gauza guztiok baiña bere kolko barruan gorclerik euki bear ebazan, bere narruaz ordaintzea nai ez ba'elan.

\* \* \*

**AKERRA**.—Eta etorri zan Larunbataren erregeari gur egiteko ordua.

Ez eban Biclebe'k, ordurarte, orrelako izakirik iñoiz ikusi. Mutillak, aren itxura!: andia, baltza, aza-orrien antzeko belarriaz, agin ustel luzeaz, ule latzez jantzitako mutur motzaz... Eta Larunbatako sorgin guztiak aren iperdi zikiña musukatu bear!

Eta Bidabe gizagaixoa, dan au. ikustean, belarriondoan azka asi zan. Ez eban azken gel ditu nai, ta «milla ta milla deabru gorrik eroango al ante, nik ori egin baiño lenago» bere kautan esanez... ondoratu... eta bere txanda etorri yakonean., jakepean ekarren eztena atara, eta... zist!, or sartzen dautso, egiñal guztiaz, sorgiñen erregari, sudur bagako begitarte aretan...

Baleak antzeko orroa atara eban Akerrak. Mendi guztiak bilin-balan asi ziran... Argi guztiak amatau... Eta argiaz bat, sorgin guztiak galdu.

Zortzi egun emon ebazan Bidabe gaixoak mendi zuloan galdurik. Eta gero, sorgin ez zan neska galant batekin ezkondu zan, eta zorion eta baketsu eun urte arte bizi izan ei zan.

**ESTONBA'TAR MAÑUEL'EK**

## ARAZOAK

# IKASPEN SAKONAK

**IKASGAIK.**—Aurtengo uztailean sekulako burruka ta matrakak izan dira Iruña, Donosti, Errenderi ta euskal erri guztian.

Jazoera orreik apurtxo bat ausnartuten badoguz, zer ikusi ta zer ikasirik badogu.

Ona emen ikaskai batzuk.

\* \*

**ARERIOAK.**—Argi agertu cia ostera bere, erdeldunak, bai eskumaturrak eta bai eskertarrak, naiz alde batekoak naiz beste aldekoak, geien baten euskaldunen arerio gogorak dirala, erri azpiratu lez garabiltzela, azpirakuntza au eurentzat erlegioko dogma bat bezela dala.

**EUSKALDUNAK.**—Izentauriko jasoera orreitan argi ikusi da euskaldunok iñoiz baño euskal jokatu dogula.

Euskal zaletasunean, lenengo, talde guztiok apurtxobat alkartu gareala.

Au benetan poztu.tekoa cia.

Erri txikia izanik bananduta bagoaz, galduak gara.

Euskal erriari ondo jatorkozan gauzetan, euskal erriaren onerako diran gauzetan alkartuta jarraitu bear dogu.

Oraingoan apurtxo bat alkartu gara.

Gure barruan bakarrik ibiltari bilduna artu dautsagu.

**NAFARROA.** Urteotan Nafarroa Euskadi dala ta ez dala ainbat esan eta idatzi cia.

Esan ditugun jazoera larrietan, Nafarroa ez dala Euzkadi esaten dabenak ondo ikusi leikee, itxuturik ez badagoz, Nafarroaren alde eskal erri dana ta bera bakarrik jaso dala.

Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba guztia bat eginda jaso da Nafarroaren aide, ez baño Errioxa, Aragoi ta beste Nafarroa inguruko erriak, euskal sena galdu ebelako aspaldi.

Nafarroa Euskadi da ez bairik baga.

Euskaldunok erri bat gareala ondo erakutsi dogu mundu xabalaren aurrean.

Au bere oso pozgarria da gure kondairan.

\* \*

**NEGARGARRIA.**—Gauza pozgarriak bakarrik ez doguz ikusi uztaileko guda-matraka oneitan.

Zerbait negargarria be agirian egon da.

Geure begien aurrean tamalez ikusi doguz gazte illun, altzurak, ezpanetan itz gaiatoak begietan gorroto ta amorru garra dariola, tarrantak erre, leiarrik birrindu ta beste triskantza zenbait egiten, ta eurokaz batera ikusi ditugu, baita, euskal gaztetxu ederrak triskantza orreitan gizon antzik ez daukien beste gizon gaztezai laguntzen.

Gure gaztetxu.ok bere zekortxu (parkatu.) zirudien.

Au bai tamalgarria.

Oporetak egin bear dira, protestak, gauza txarren aurka egin bear dira, baño gizabidez zibilizatu lez.

Gure iraultza gizontazunez betea izan bear da.

**GIZATASUNEZ.** Euskal Erria ez da abere-erria, geinbaten kristau erria baño, eta, dana dala-biotz dun erria.

Ez daiguzan ekarri gure gan.a eriotza, indarkeria, triskantza.

Ez buruak galdu..

Gure erriaren alde burrukan egin baño zentzu-enez, maitetasunez alkarturik, orrela mundu guztiak ikusiko dau gu erri bat gareala munduaren edergarri bat gareala, geure eskubideen gai izan bear dogula.

Egin dagigun euskadi garbi bat, euskadi maitale bat Euskal Erri askatu bat eta alegiñez Euskadi Kristau bat.

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K

## KILI-KILI

UMEAK ABEDETZEAN EUSKALDUNAK  
EGITEN DABEN.

L A N EDER-EDERRA

EUSKERAZ UMEENTZAT 1.º ALDIZKARIA

\* \* \*

LAGUNTZAILLEAK BEAR DITUGU:

- Marralariak
  - Margolariak
  - Eroaleak
  - Zuzentzailleak
  - Esku-langilleak
- ETA ABAR...

LAGUNDU EGIGUZU, EZELAKO ASTIRIK BA DAUKAZU

Deitu: Kili-kili'ra, 6-16-60-49 edo  
Euskerazaleak'era: 4-23-53-22

BEAR-BEAR ZAITUGU. ZURE LAGUNTZA  
POZIK ARTUKO DOGU.



# BIZKAI'KO KOLKOA

**ITXAS-BEDARRAK.**—Itxas-bedarrak, gaztelera, «algas marinas», deiturikoak, ugarriak dira gure itxas-bazterretan.

Urtero 1.000 upelpada, tonelada, kanporatu, saldu oi doguz, Gipuzkoa, Biakaia, Santander eta Asturias bakarrik kontuan arturik.

Errialde erosleak geienbaten Holanda, Finlandia, Italia, Errusia ta Goi-Amerika'ko Lasterri Batuak *dira*.

Teknikoen eritxiz, artu daroagun kopuru au larregi ei da, eta Kantauri Itxasozko, itxas-aldeko arrain eta bestelango abereak edo bertako «fauna» arrisku gorrian aurkitu oi da, ori dala ta.

\*

**«AGAR» ZERKIA.**—Itxas-bedar gorriagandik ateraten dabe batez be «agar» izenez ezagutzen dogun ekarri edo mazkin bat.

Urtero «agar» gun onetako bi milla tonelada lortu oi dira, ta euretatik eundik larogeta amar (% 90) atzerrira doez.

**Bizkai'ko Kolkooan, agar mozkin ontako bost salgai-toki garrantzi aundikoak doguz eta euren artean ospetsuena. Llanes izenezko errian aurkitu oi dana ei da.**

Irabaziak be ez dira txikiak.

Bost illabetean bakarrik, ogei milloi pezetatik gorakoak dira askoren eritxiz.

\* \* \*

**BESTE IZAKI BATZUK.**—Beste ekarri batzuk be atara leikez itxas-bedar gorriagandik.

Eta iraungarri, emulsiogarri ta izozturi-koak diran gaietaz, Janarietan, oialkintzan, azal-apaingarri edo kosmetikan, osakitegi-tan, eta abar... bein eta geiagotan onuraz erabilli oi dira.

\*\*\*

**ZELAN ZAINDU.**—Naturalisten ustez, Japon'en egin oi dan legez, landaredi itxastar

oneik su ta ke zaindu, jagon-bearra dabe, eta alik eta denporaldi luzeenean, alan be.

Orrelan ugaritsu ta goiberako neurri ego-kienean aziko dira.

Orretarako toki berezienak be billatu bear, ziñez.

Itxas-bedarretan ibilli dabiltzenen itxas-peko gizakume, submarinistak, 160 inguru oi dira; 45 itxas-ontziñoen *erazko*, gisako, laguntasunagaz izan be.

Gero, lurreratzean, giza-talde ugaritsua bear da, len esan doguzan zer guztiek irabaziz, onuraz, amaitu ta burututeko.

Ori ta be, artu-aurretik itxas-kutsaduraz be alperrik galdu leitekez. Eta ortarako, itxas-urbiziak be kontuan arturik, beste neurri batzuk bearko dira.

Eta emen daurkigu benetako kozka.

Bestela, oartu Prantzi goi-aldean arriorioz beteriko «Amoco-Cadiz» itxas-ontziaz gertatu dana.

Emen ur-bizien zuzenbideak, joerak, salbau gaitue, egiz.

Oraingoz, baiña, amaitzera noa.

Izadia zaindu-bearra dogu, eta guretariko bakoitxak zeregin ontan bere eginkizunetan aletxo bat ipintea, gizadiaren onerako izango litzape. Ziur gagoz.

ARREGI'TAR JOSU'K

EUSKERIA IKASTEKO, EIITUIU ETA ULERTU

XAVIER PEÑA'REN IRAKASPENAI  
JARRAITUZ.


KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.

ESKATU

EUSKERAZALEAK ALKARTEARI.

(Colon de Larreategui, 14 - 2.º)

# ZEZENAK OROZKO'N



ZEZENAK OROZKO'N

**IBARREAN ETA ZUBIARREAN.**—Ez toki baten bakarrik, bitan be bai, Ibarra'n Andra Marietan eta Zubiaur'en San Antolin'etan. Emen il be egiten dabez, España'ko edozein enparantzatan lez.

Zezenak ez dira Andaluzia'ko larretakoak izaten, Errioxa'ko zezen txiki bizkorrak baiño.

Ibarra'n barriz, Gorbei'ko bei argal maltzurak zezenkatzen. dabez. Il ez dabez egiten, baiña amorratuazoteko min aundiak emon bai, ziriak ziriak sartuez.

\* \* \*

**UDAL-OARRA.**—Aurten senideak deitu. eusten Ibarra'ko jaietara eta, jakiña, zezenak ikustera.

Egia esan, zezep.etarako iguiña ta gorrotoa dau.kadaz.

Alan eta be, ni txikia nintzala, neuk eta ni lako mutil koskorrek poz aundia artzen genduan udaletxeko ziñegotziak, bere kapela ta kapu.saiez jantzita, Meza-ostean, elaiizpean, Andra Mari'ko jaiak baiño iru domeka lenago, zezenak izango zizala jakin-azoten euskunean.

\* \* \*

**EUSKAL JAIA?**—Ez clot uste zezenak euskal-ikusgaia diranik.

Arana ta Goiri'tar Sabin be ez zan zezen-jaiaren laguna eta Ibarra'ko Felix Letona ta Ezekieli Errotaetxe areri lenengoz Bizkaia'n autarkia emon eutsoenak be ez.

Bartolome Letona, Deustu'ko alkatea, Felix Letona'ren osabea, Sabin'en adiskide aundia zanak be ez eban zezenik onartuko.

España'ko dan eta arabiarrakandik artutako oitura anker, iguingarri ori Euzkadi'tik aldentu ta baztertu egin bear geunke.

Onetan gure alde aurkitu doguz Lagundi abere-babesleak.

\*

**ORDEZ ZER?**—Ikusgai orren orde zergaitik ez dozue Orozko'tar guztiok pelotari, futbolista edo txirringulari-zaletasuna sortu, bizkortu ta berrotuten? Edo ugartegi (pizina) bat egin or pie-sapean esaterako?

\* \*

**ATXETA.**—Zer egiten dabe Atxeta'tarrak? Len ain abertzale ta jeltxide ziran Atxeta'tarrak?

Auteskundean beti etxe aundi orretan egiten eben abertzaleak bazkaria. Orain Atxeta, Sabin Arana'ren lagun etxe aundi ta oroigarria, jaus-ten dago, eta Iturbe'tar Felix'ek etxaguntza emon-go eutsan esan. arren., Euzkadiko oitorea dan lez, amak, gitxi laguntzen eutsala ta, Atxeta berari emon bearrean., seme-alabai bardiñez itxi eutsen eta orrelan Atxeta iñork ez dau barriztau gura, zori txarrez.

Felix'ek ba euken barriztatzeko asmoa, an txalet eder bat egiteko be bai. Edo obeto ba'letor, len.engotan zan lez, euskal-etxearen itxuraz, kamiño aurre-alderantz begira-tokia, masti ederre-z apainduta, ainbat bidar Bilbo'ko m.argolariak margoztua., Bizkai'ko erti-tokian gordeta egongo dana.

EGILUZE'K

BIZKAI'KO ADITZA IKASTEKO  
«EUSKAL-ADITZA BIZKAIERA»

2—argitaraldia  
Salgai liburutegietan  
eta egilleak berak  
PUXANA

# NEURE ERRIKO BARRI BATZUK

## BERMEO'TIK

**ZAR SARIDUNAK.** — *l9renn da 78ga.rrengo urte onetan eta beronen Bagil ille onetan eta eguntzak ain zuzen 10 daukaela, eguerdiko ordu batetan, izan gendun Zar saridunen Bazkuna'ren berau igiri-aurreko LEN-IGIRIA edo «inaugurazioa».*

*Adrian aita Franzizkotar lekaide ospetsuak onetsi euskun.*

*Notintza andia gengozan une artan «Zar Saridunen Bazkun orretan, eta onetsitean guztiok gogotsu OTOITZ egin gendun.*

*Baitxe egon dira ugari Len-Igria ospatuteko, jan-dariak ba.*

*Oneik be, gogotsu jan da edan edan doguz.*

*«Zar Saridunen Bazkun» ori guztiz ederto dago apaindurik.*

*Bazkun onek ba' dauka goia eta bea.*

*Emen eta goian komunek edo irolak txukuntasunez omidurik dagoz.*

*Aurkiak edo jesarlekuek asko eta dotoreak dauzka rira ustez.*

*Urrutikuskiña to urrutizkiña ikusi dut dauzkala.*

*Argiak be, ugari dauzka.*

*Bazan sasoie Bermio'ko erri, en be, olakue ikusteko edo egiteko! Eskerrak ugari to eurok beruek emoten dauzadaz Bizkaiko Aurrezki Kutxari.*

**APURTZALLEAK.** — *Aspaldiz gagoz ikusten gure errian bai Lamerie deritxogun lekuan eta bai Talie deritxogun lekuan, eziketa eza daukienan frogantza «demostrazinue».*

*Aurkiek edo jesartegiek ausitxe dagoz leku bietan au da, Lameran eta Talan.*

*zegaitik izanen do? Eziketa eza edo lotsarik eza nik uste.*

*Eziketiek dirausku guztioi, txarrrik iñon ez egiteko.*

*Au onela dogularik eziketaz ondo dauden notiñak ez dau egingo txarrrik iñon. Ez daukienak bidien jartzen ba' ditue daukana, onek atzerantz egingo dau gogoratuz bakarrik egiñaz, ez iketak dirautsolako, txarrrik ez egi-*

*teko baiña zori-txarrez, danok, ez gagoz bear dan bidean ezituta eta danok ez gagozen ezkerro, ausartiak ausartzen dira an edo emen, txar egiten eta au, tamalgarria dala erritar guztiontzako.*

*Aldi Galen argi-bonbillek apurtuten zituen eta apurtuten ikusten genduzan.*

*Apurtutzaille orreik be, gogoratu «pentsa» bear leukie euraentzak be apurtuz kalteak daduzkala, nai ta nai ez, erri onetako biztanleak ba'dira.*

**ARRAKALAK.** — **Talan,** *gore erriko Talan, ba' daukagu komune edo irola eta onera juteko bide-asieran edo asierie dago lurra, arri andiak eta igeltsuz egindako eskillarak arrakalatuta dagoz. Maiz edo sarri goazanok Talara eta komunera, ikusten dogu arrakala orreik andiagotuten doazana eta clan ikustean, bildurrez joten gara batzuk komune ortara.*

*Baten-batzuk ez dira juaten txarra gogoratuz «pentsatuz».*

*Oneik larri-onean ormai ta zugatzai eiten deutse garnu. zikiñe ixten jotene dire beste toki batzutara. Ia arduredunak arduretuten ba' dire txarra gertatu baiño len.*

*Bizkai Aurrezki Kutxak ein desku*

*Bermio'n be «ZAR ETXEA»,*

*sasoie bai zen guk be errian*

*olakue ikustea;*

*esker beruek neure aldetik*

*meretziz nai emotea,*

*iñori baiño berari lenau*

*asma daulako eitea.*

*Gure errian bada apurtze*

*aurki eta bonbilletan,*

*bonbillek ba'dau geldi uea*

*aurkiak ez lekuetan?*

*eziketa du guztiok baiña*

*bardiña ez guztiontan,*

*lotsie euki bear betucie*

*apurtzaille diranetan.*

**AZPEITIA'TAR GOTZON**

# EUSKAL KANTU BARRIA

GAZTELAKO ZELAITIK

**Gaztelako Zelaitik**  
**Begiak begira**  
**Laiño zuri bateri**  
**Galdezka asi dira:**

**Zer barri gure etxean?**  
**Andik zer barri da?**  
**Ama ikusten, laister**  
**Naiz Euskalerrira!**

**Atzo gure etxean**  
**Ume bat jaio da**  
**Aitaren izenakin**  
**Bataiatuko da:**

**Gure lege zarrían**  
**Ezia izango da:**  
**Fededun eta euskaldun**  
**Beti biziko da.**

**OXOÑONDOKO TXORIA'K**

## Jon Paul, Aita Santu Barria



UNE GARRANTZITSUA.—Dagonillaren seian mundu zabaleko errati ta urrutikuskiñak VI Paul'en erriotzearen barria emon ebenean, ainbat milla biotz dardaratuko ziran atsekabe-taupadaz.

Eta ez Aita Santu bat galdu ebelako, bere oiñordea aldatzean gauza itzalen bat Eleizan jazoko zalakoaren bildur ziralako baiño.

\*

BATEN PENTZUAN?—Aita Santuak daukon egin-bearra albistariak larregi gogoratzen dabela esan da idazlan askotan.

Erakundeak gizon baten nortasunak baiño geiago balio dauala adierazko dabe oneik.

Ori izango zan, diño, Aita Santua Eleizearen buru ta dan-dana izaten zanean.

Eleizeak olangoentzat Aita Santuaren eriotzan ez dau bere izatea jokutzen. Aldi'orrek igaro dira. Gaur Eleizea askoz alkartuagoa da. Aita Santuak Sinodo edo Eleiz-Batzarraren bidez agintzen dau eta gotzaiñen eritxiak onartzen ditu.

Gizon baten eriotzeak ezin lei egin aldakuntza ain garrantziko ta arduratsurik.

\* m \*

GIZONAK, ERAGIÑA.—Ez noa eritxi ori eztabadutzen.

Alan be, teoriz, burubidez, uste dana ta etorkizunean izango dana gauza hi dira: Gaurko Eleizan Pedro'ren ondorengoak beronen giza-izakereaz ba dauko zar-ikusia.

Pio XII'gaz Eleizea sutsu ta apur bat lege-zale ta aundizale izan zan; biotzezko ta emoille, esku-zabal zan Jon XXIII'gaz eta Paul VI'gaz eztabaidazko ta naigabedun agertzen zan batzutan.

ZIURTASUNA.—Orain ogei urte, XII Pio'ren eriotza-ostean, ardura aundi ta urduritasun asko barik konklaberatu zan Eleizea.

Orduan, ia guztientzat, norbaiten aldatzea baiño ez zan ikusten, gitxik asmatzen eben benetako erantzun-bearra.

Sinistedun geienak, Eleizan ederto jesarrita egozan eta Eleizea bera ondo antolatuta egoalako ustea geunkan.

Ontasunaren eta txarkeriaren toki-zelaiak argi ta garbi berezita egozala uste izaten genduan: Eleiz-barruan on guztia egoan eta gaiztakeri guztia kanpoan.

\* \* \*

ARDURATU-BEARRA.—Nok oartu leikean mundu-agar eta kulturearen alkar-izketeagaz artu-emonen bear zala? Nok Eleiz-Batzar Nagusiaren eta ekumenismoaren pre-miña?

Eta Eleizako buru-bide ta aginpedeari dagokionez, esan-gintza naikoa zan orduan.

Baiña XXIII Jon etorteak gauza asko aldatu zituan. Eleiz-Batzar Nagusia egingo zan eta berarekin gaurko munduaren aurrez-aurre. Eleizako buruzagien azterketea.

Eleizea estuago, bananduago, baiña baita bizkorrago ta itxartuago be egingo eben.

Katoliku izatea gaitxago izango zan.

Esanak egitea ez zan naikoa izango, alkarragaz lankidetu egin bearko zan.

\*

BATERATZAILLE.—Lengo ta oraingo kristiñauak jakin bear leukeez, orregaitiño, irakatsi oneik.

Pedro, lenengo Aita Santua, ez da uts-utsean lenengoa arria. Oiñarri izate au ezin lei ulertu aldirako gauza lez, Jesukristo'k Pedro'ri emoneko zeregiña ez da Pedro'rentzat bakarrik. Betirako eginkizuna da, iraunkorra da, eta erakunde guztiari sendotasuna ta batasuna damotsoz.

Pedro'ren zeregiña ez zan Eleizearen sortze-aldirako, aldi guztietarako iraupena dauko, betikotasunera luzatzen da.

Pedro'ren ondorengoak bere apostolugintza artzen dabe eta sinismenaren batasunean Eleizea zaintzen dabe.

\* \*

ALMEN BARDIÑAK.—Kepa'ri esan eutsan Jesus'ek «Erreiñuko giltzak emongo dautzudaz» eta uri edo gaztelu bateko giltzak emoteak jabetasuna emotea esan gura dau beti.

Baiña eskubide ori ez cia berarena bakarrik, ondorengo burua da Pedro. Bere eskubi deak eta berari egindako eskintzak, ondorengoengana igaroten dira.

Kepa'k besteko almenak daukaz Jon Paul'ek.

Jesukristo'k Eleizearen burn jarraitzen dau eta Aita Santuak ez dira here ordezkooak baiño.

\* \*

ATXEAN OIÑARRITUA.—Aita Santu bakoitzak bere norberetasuna dauka, bere pentsakerak... baiña barruan dagon izakerea bardiña da.

Augaitik Aita Santuak igaro egiten dira, baiña Aita Santua bera, Jesus'en eta Kepa'ren oiñordekoa, ez da iñoz ilten.

Atx-gaïnean dagon etxe oiñarritua cla.

Bere aurka ezer ezin legikee euri ta ekaitzak.

\* \* \*

EZ BILDURTU!—Bildurtzen dan sinistedunak, siniste makala erakusten dau.

Eztabaidak, jazarpenak, barruko ta kanpoko ekaitzak, iragarritu eta aurreztik esanda dagoz.

Orren gaiñetik Kristo'ren eskeintza agiri cla: «Eleizearen aurka ezer ezin izango dabe».

## LAVIGERIE

—Lavigerie kardinala, jaiotzaz euskalduna zan.

—Irakaskintza izan zan bere ardurarik aundiena.

—Argelia'ko txirotasuna ta ezjakintasuna ikusirik, onei laguntzeko lan aundiak egin zituan.

—«Aita Zuriak» izena daren lekaideak asmatu zituan, Aprika'n fedea zabaltzeko. Bereber'ak lez jasten dira.

—Asia'n be antzeko lanak egin zituan.

—Berari esker amaitu zan errietako azoketan jopuak, «eskaboak» saltzea: Ori ebatzi zan 1890'ean, bere alegiñez lortuta Bruselas'en agintariak egin eben batzarrean.

—67 urte zituala il zan Esukalerriko kristiñau goragarri dogu Lavigerie kardinala.

**ARGEL'EKO GONGOTZAIN.**—42 uric bakarrik ebazala egin eben Argel'eko gongotzain, 1867-asi zan.

Izen ela eragin andiko gizona zan, orduko.

Baiona'n jaiola, Lapurd'ko Larresoro'n emon ebazan abadelzako ikasgaiak; eta Parisen abadelu zan.

Sorbona'ko Unibertsitateko irakasle izan zan. Liburu ugari la ederrak emon ebazan argitara.

Ori zala-ta, Prantzilro eskolen radon egin eben; eta ikastetxe barri asko sorrerazo eban, bai Prarizi'an, Gaita Asia'ko Siria ta aren ingurutako lurraldean. Andik etorri bezain aria, Vancy'ko gotzain izendatu eben.

**BEARTSUEN ALDE.**—Iñon ez bezelako jeune txiro, ezjakin ta jausia topau eban Argelia'ko lurralde zabalean. Eta bereala jaso ebazan arenlzat bear ziran ainbat eskola la gaxoeixe.

Prantzia'ren menpean egoan Argeliako lurraldea, eta Mac-Mahon gudagizon gogorra zan bertoko arduradun.

Ez eban onek begi orrez ikusi gure elizgizonaren eskueicko lan maitagarri ori; eta bere laguntza ukaluz gainera, al eban kalte guztia egin eutson.

Ori zala-ia, joan-etorri ugariak egin ebazan Laoigerie'k Europa'ko lalerreelara, diru la laguntzailleen eske.

Y \*

«AITA ZURIAK».—Izen ori emon izan yake, gore gongolzain berak sortu la burutulako mixiolari-talde barrikoai.

Argelia'ko «bereber» orreen «chillaba» kapusai zuri luze ori daroe soñean, eta areen «fez» izeneko txapel gorria buruan.

Areen etxe eta erara bizi dira. Bertakook grzabidetzeta da colon lenengo lanbidea, eskola, gaixoeixe to erri guztietan.

Aito Santuak, gore gongaitzaiñaren eragin ta arrakasta ikusirik, Ipar-Aprikako lurralde osoaren bere ordezkari izendatu eban.

Eta or asi zan gure elizgizona, bere ardurapeko mixiolari arrigarri orreek alde guztietara zabaltzen; Saha'a'ko basamorluick asi eta Aprika erdian dagoen Tangani'ko I'rk igarotan, Sudan'eko lurralderaitto eldu arte.

Zazpi elizbarruti baTi eraiki ebazan bitarte zabal orretan. Eta Sudan'etik egaz egiiti/c, A sian be ibilli zan. Eta andik igoro ondoren, mixiolarienizat ikastetxe bati bat sortu eban, fersalem'en, len Argeiian egin eban lez.

\*

**YOPUEN ALDE.**—Gauza motz bat ikusi eban gure gizonak, bere Aprika'ko f'billalr' luzean: erriko azol,-elat, gizonak asioeu artean k atez lotuta, eta astoak lez salgai...

Ikusgai baltz orrek biotza, biziro iku-Pita, Europa' ra jo eban, barriro.

Eta A ila Santo Leon XIII garrenaren baimen la eskubide guztiak lortu ondoren, laterriz-laterri, ibilli zan, Aprika'ko yopu errukarren alde, itz eta itz.

Ez eutsoen baiña Europa'ko agintariak jaramon andirik egin.

Eta eroapen eta eragin andiko gizona zan-eia, zurilu al izan ebazan, azkenik, Europako agintari beiñenak. Eta Batzar nagusi bat gerian la eratu eben Bruselas'en, 1890-an.

Baste bat geroxeago, Paris'en.

A ren buruz gainetiko lan oneak baiña, aren osasuna makaldu, ta beste mundnra bidalrhn eben gure gizon bizkorra, bear baiña len bidaldu be; 67 uric e-uk azanean.

Ez ziran baiña alparri'kakoak izar aren alegiñok. Betiko galdula gerala zan, andik laster, Aprika'ko yoputza lotsagarri ori!

## Lege zarren antzerkia

(Zeanuri'ko jaietan)

*Zeanuri'n aspaldiko uric batzutan eta erriko jaiak ospatzen diranean, gazteak oso gauza egokiak gertatzen dabaz erriarentzal eta erria arteko (lala).*

*Elburua, egokia la onuragarria, jolasluez irakaslea da, jaiak egiñez erri-kontzientzia sortzea.*

*Ori lortzeko bideak artea ez da Zeanuri'n gaurko gauzea, antxiñatik eraten ziran jaietan berbaldiak eta olakoak, orain uric batzuk dirala eratu zen erriari buruz «mai-bir'billia» edo jenteaurreko alkar-izketea.*

*Baiña ekinzarik gogoangarrienak: oneik izan dira: XVIII gizaldiko ezlegua, Erriaren lanbide zar eta barriak (Ekintza onek entzule aundia izan eban Zeanuri'-ik kanpora be eta Erakuskelatokian, «Feria de Muestras» en be anlzezlu eben), eta aurtan Lege zarren antzerkia.*

*Anlzerki onen gaia oso interesgarria da.*

*Gure kondairan lege zarrak zelaz galduez joan diran aztertzen dau, Erdi-Arotik asi eta 1876'ra arte. Etorkizunari begira amaitzen da.*

*Euskalerraren eskubideak, nortasuna, izan dauan askatasun osoa agertzeko bide oso onoa da ori eta ortik jokauten dau lan onek.*

*Antzerkiak ba dauka irudimena, batez be Erri-gogoa alegori lez agerizean, sorgiñaren berbetan Abando'ko argia la Gemika'ko sua gogoratzean, eta anlzezlu ezin leikezan gauza batzuk izlariaren bidez agerizean...*



*Antezlariak Leanuri'tarrak, erri-maillako jentea (bra, zar eta gazte guztiak naste, 60 anlzezleri-inguru.*

*Baiña batzuk ailalulekolan, Emaldi'tar Frantzisko lenen. Ederto lan egiten dau eta anlzerkiaren barruan daukan zeregiña ondo beteten dan. Koban bizi dan sorgiñaren lana ezin-obeto egiten dau anxiñalik olakoelan ospelsua dan Paule'k, eta Inlxaurraga'lar Koldo aurkezle lez eta jaunlxo lez egoki agertzen da. Azkenez, lan guztiaren barruan eta izlari ta aurkezle lez, Angoitia'tar Sebastian, geienen onek egindakoa dala uste dogu anlzerkiaren idezia.*

\* \*

*Geure ustez obetu leikezan gauza batzuk gogoratu bear doguz: Gatzaren matxinada-ondoren izan ziran ilketak berba utsez barik egilez zergailik ageria ez? Eta bardin Bergara'ko Besarkadea, zergaitik ez ageria Espartero la Marolo'ren arteko alkar izketea gudarosleen laburrago egin?*

*Eta antzerkian ikusleak artu bear dira kontuan. Naizta ordaindu zerbait, eurentzat jarlakuak ekarri. E izan naikoa ondo egiten zoo, baiña ikusteko lxo ibilli giñan eta anlzerkiak asko galtzen dau.*

*Benetan txalogarria cia goragarria da Ian au eta, gitxienez, euren arloan Obanos'ko Misierioa edo Ezlibaliz'ko orde-emoieak dagozan maillan jarri bear da.*

*Beste erri batzutara be, deitzen dautse.*

OLAZAR'TAR MARTIN

✕ Zeanuri'ko gazteak, jolastuez batera, erriari irakatsi egiten dautsoe.

Lendik ikasitako bidea da ori: Antxiña berbaldiak egin ziran jaietan, oraintsu ba bai; gero, XVIII gizaldiko eztegua zelaz egiten zan, urrenge lanbide zarrak eta barriak, eta orain Lege Zarren antzerkia.

Gaia: Erdi-Aroan asi eta 1876'ra arte, Euskadiren kondairea, lege zarren ikuspegitik.

✕ Antzerki-bideak: Erri-gogoa ta sorgiña, irudimenezko norkiak eta izlaria jazo-penen azalpenak emoteko.

✕ Antezlariak: Irurogei erritar, Emaldi'tar Frantzisko Eujenio gudari lez, Paule sorgin lez, itxaurraga tar Koldo aurkezle eta danaren azpian eta barruan Angoitia'tar Sebas idazla ta izlari.

✕ Obetu bearrekoak: Gatzaren matxinaderan ondorenak (ilketak) antzeztu, bardin Bergara'ko besarkadea. Ikusleak zutunik egon-bearra.

Erria kultura-bidera sartzeko eta kondairatik erri-zaletasuna aterateko, oso lan egokia da.

# EUSKALDUNA

---

**BURUA TA BIOTZA.**—Euskaldun gizona, ots auncliko semea da.

Euskaldunak burua ta biotza, min punta ta anka luzeak baño, beti, bizkorrago erabili oi ditu.

Itz asko egin nai batera ta bestera, arin, ibilteak, zurtasuna, beti, ez dau agertzen.

Gu ez gera itz jariotan urtzen garanak.

Gure izateak, berez, naiago dau negurrizko ixiltasuna.

Euskaldunak itz utsak baño egi sakonak eta hizigarriak naiago ditu.

\* \*c

**EGIZALEAK ETA ERTILARIAK.** Gure errian egizaleak, beti, izan dira estimagarriak.

Euskalduna, izatez da baita be, artista edo ertilaria.

Almen onen bidez eusko semea gizon jator biurtzen da.

Arinkeririk, inundik inora, ez jako atsegin.

Ta era onetan, bere gizontasuna ta nortasuna darioz lan tokian, naiz jolas zelaian, naiz jakintsuen artean.

\* \*

**LEN ETA ORAIN.**—Erri txiki baten jaio nintzelarik, antxe, ezagutu nituan gizona jator ta estimagarriak.

Ta era ortako gizon arek zuzenleak, eta era berean, erri zaleak ziran.

Erriaren alde, erriaren ona billatzen ikusten nituan.

Gizon a<sup>v</sup>ei esker, euskaldun eta gizale biurtu giñan beste asko ere.

Geroztik, erria geiago ta geiago ezagutzen joan naz.

Sail aundiagoak ikusi ditut.

Guda osteko urte luze onek, batez here, zer erakutsi nai izan deuskue?

Besteak gaitik gaizki esan, mindu, salatu...

Ze uriola modu izan da ori?

Guztia joan zen. Ta euskaldun jatorrak, entzute oneko euskal erriak, guzti ori lepo gañean eroan dau gaizkille bat bezela.

Baña gaizkillea etzan, erri aundi bat baño.

Ta euskalduna, munduari argi egiñez, beren euskaldun bidean aurrera joian.

**GIZONAK AUKERATZEA.**—Ta era ortan, azken urte ontara eldu gara.

Jokera barriak age rtu jakuz.

Berrogetabat urtean galduta egoan bidearen izpiak agertu dira.

Legeak barriztatu bear ziran.

Orretarako, gizon barriak ere bear dira. Gizonak aukeratzea, beraz, jarri dabe.

A

**ESKUBIDE-BILLA.** — Euskotarrak bide ortatik doaz, betiko legez erriaren bizia euskotarrei adieraziz.

Erritar zati on batek deia entzun ta erantzun on bat emon eutsen. Euren ordezkariak aukeratu ditue. Pentsabide bakoitzekoak euren erakoa.

Ta norbere maletak artu ta Madrillera doaz euskoen ta gizonen esku-bideak oiukatzeraz.

Jokabidea, orain, berrogetasei urte bezela bardin-bardiña. Egiaren bidea.

Y

**ZIGORTUEN ALDE.**—Euskaldun aldunak auxe eskatu eben lenen lengo, Madrillera aldukeran: atzerri-ratuak eta espexeratuak pertsoenc askatasuna izan egiela.

Arazo ori beste eginbear batzuen artean lortu naian, gogor jorratu eben Euskalerriko aldunak, euskotar zintzo-errimeak egin oi eben eran.

Euskalerrriak bialdu ditun gizonak erri onen onean dabit, arduraz, ekinan, ixildu gabe ta eten gabe.

**EUSKALDUNEN EGIA.**—Euskaldunak kartzeleetalik urte dabe.

Erriaren gogoia izan da ta guztiok aldra ortan sartzen gara.

Ta gure aldunak dei egin eben, lengoan, barriz ere, Madrildo batzarran.

Danen artean dar-dar eragin eutsen jendeari.

Euskaldunen egia agertu zan.

Ta zuk, Arzalluz, eginbearrckoa egin zendun.

Zure argi-ndera, adorea, euskaldun bezela, nekepean dagozanen ta euskaldunen alde ixuri ziñuzen kortetako jendearen aurrean.

Errien nekeak ta askatasun bearra batzar agirian agertu ta eskatu ziñuzen giza eskubideen ta Euskalerrri o saren izenean.

\* \*c

**EUSKALERRIA BULTZALARI.** Aldunak egiaren indarra ikusi ta onarturik, onez gañera, erritu egin ziran zure itz argi ta sendoagaz.

Txalo bidez, gogoz eta batean, zure itza baiezta eben.

Euskaldunen ordezkaria zara.

Euskotarreen bizia ta jakituria eroan dozu gizonen aurrera.

Zu, Xabier jauna, izlari beste aldunekin batean ta Euskalerrria bultzalari.

Indartsua egia bezela izan da zure itza.

Alaxc da euskaldun aritza.

Aske izango al da bizitza, gizon ta erri zu-renaren lan emaitza.

SOLOZABAL'TAR PAULIN'EK

# ARAZOAK

## MOZKORKERIA

**GAURKO IZURRIA.**-- Gaur eguneko gizarte-izurri bat dogu mozorkeria.

Droga-zaletasuna baiño zabalegoa eta edatsuagoa Wan be.

Sustrai sakonak bota ditu Europa'ko egoaldean dazazzen laterrietan.

Or dozuez Italia, Prantzia, España esate baterako. Ludiko alkool-zale nabarmenenak dira ain zuzen.

Eta Euskalerruari buruz zer esan daikegu?

Zio bategaitik edo besteagaitik, eta sarritan oitura bumbako ta ergel bat bide dala, akats ontan euskaldunok dan-danoi aurrea artzea lortu dogula, tamalez.

\* \* \*

**BILBO'KO BILLERA.**—Dagonillaren lenengo egunetan Deusto'ko Ikastetxe Nagusian, alkooliko berrabilduen «erreabilitatuen» 7'garren laterriko batzarra ospatu zan Bilbo'ko «Urrezko Kurutzea» deituriko lagundiaren babespean.

Ondoren eta aterakizun garrantzitsuak agertu euskuetzan bertaratu ziran sendegille, gizartelari, abade ta gaiierako izlariak.

Laster baten orretzaz joko dogu.

\* \* \*

**URREZKO KURUTZEA.**— Urrezko Kurutzea esaten jakon Alkargo au, ez da Bilbo'tarra izatez.

Berein urte dirala, Noruega'n irasi zan eta egungo egunean bere adarrak Sartaldeko Europa'n zear errotsu, sakonkiro, kokaturik daurkiguz.

1962'an Bilbo'n antolatu zan eta egun 400'dik gorakoak dira bertan noizean beingo egun izendatuetan batu oi diran bazkideak, euren arteko alkar-laguntza eskiñiaz eta ordikeritik urteteko osasun bideak berebak billatuaz.

\* \* \*

**ZENBAKIEN DANTZA.**—Euzkadi'n, 850.000 or nunbait alkooliko daukaguz.

Zenbaki izugarria benetan!

Arazorik barrietariko bategaz topo egin dogu geu ia ia oartzeko.

Orrelan arazo au ez da soillik osagilleen zeregiñetako bat, ez bein.

Orrez gain, gizarte-erazo, azi-orrazi neketsu bat izatea gertatu jaku ziur asko.

Eta guztiok arpegia emon bearra dogu. Lenbait len eta adoresu emon be.

Eskaide ugariak egin ziran len esandako Bilbo'ko batzar ortan.

Euretariko arduragarrienak bat-batera emotera noatzue.

\* \* \*

**ESKARIAK.**—Emakumeren bat aurduan aurkitu oi ba'da, ez jako egoki alkooldun edaririk edatea; ez eta umeai, gaztetxuai, eta amazortzi urtetik beerakoei eskuratzea, eta pranko naiz ingurumari edari oneik eurai jartzea.

Onek beste ondorio bat dakar, eta gurasoak batetik eta irakasleak bestetik, lan ontan ados joan bearra dabe.

Aurrei ikastolan eta etxean berebat erakutsi bear jaketz alkoolkeriagandik etorri la dario daikezan arriskuak eta gaur gazteleraz esan oi dan «higiene mental» aren bidez gai oneri buruzko argitasunezko aurrea artzeko, alkolkeri gaixo ikaragarrian ez erortzeko, ekiñaldi bikain, jatorrak egin bear dira.

Au da, aurkako eziketa bat aurrai ta gaztetxuai emon bear jake.

Ortarako ekiñaldi. edo kanpaiña oneik izan bear dabez, egitan.

\* \* \*

**GIZARTE-ARAZO.**—Alkoolkeriaren gizarte-alderdi, an kontuan arturik, batzarrean bildu ziranak beste premiña aundiko eskabide bat egin eben: gizarteko erakunde guztiak akooleria, gaisotasun lez artu egiela eta «Seguridad Social» edo Gizarte-Babesaren gain eta esku, alkooldunak egon bear Zeitekezela.

Beraz, Gizarte-Babesean sartu bear dan gaisoa dala eta gaiso onei bear dabezan sendagaien laguntza eskintzea egoki dala.

\*

**ZERGAITIK GORENGOA.**—Miguel Angel Diaz jauna dogu «Urrezko Kurutzea» elkargoaren burn.

Zer dala ta doguz ainbeste alkoolzale Euskalerrian, batik bat beste Erri ta Laterriakaz bardindu oi ba'dogu?

Diaz Jaunaren erantzuna lojikoa da. Berezko zera dala Euzkadi'n ainbat eta ainbat alkoolzale Idorotzea.

Euzkadi'n, gizarte «stress» tenziño bategaitik joten da edarira, giza-zuzengekeriak sortzen dauan eraso-aldiakaitik eta baita be lan-arazoagaitik.

Jaietan, ezteguetan eta abar, edaten da, baiña ori ta be, ez ei da au ainbesteraiñoko bultzagai ta zioa.

Emen, Bizkaia'n batez be itz batez esanda, aztuteko edaten da: gure gizarte ta lanean sorturiko buru-auste ta korapilloak aztuteko, alegia.

\* \* \*

**EMAKUMEAK ZER?**—Ez noa gaztediatzaz ezer esatera. Danok dakiguz gaur eguneko neska-mutillen joan-etorriak, «Kuba libre» ta bestelango edari nastuak, nola, geien baten edari biziakaz sorturikoak, edaten dabezan.

Ori ta be, emakumeen arteko alkool-zaletasuna, aztertut oi ba'da, ikusi leiteke euren zaletasun ori «ezkurtuko» dala, Diaz jaunak esan dauan lez.

Baiña, nai ta emakumeak bere alkool-zaletasuna gorde, geroago ta neurri aundia-goan edaten dauala esan lei.

\* \* \*

**GAI SAKONA.**—Gala oraingoa ta ugarria da eta lantxu au baiño beste luzeago ta sakonago bat bear leuke.

Emen beintzat gogapen batzuk gai onenaz damotzedaz.

Ikasi dagigun edaten, ondo edaten, oiturak zuzentzen eta gizarte ta lanen ondorengo burukomiñak beste era batera aztulen.

Gure buruak al dogun neurrian zaindu oi ba' doguz, gu ta gure Euskal-Erri maitea obetuko doguzela deritxat.

ARREGI'TAR JOSU'K



# EUSKERAZALEAK BERGARA'N

EUSKERAZALEAK erankundeak edo alkarteak, erri-euskerea maite dau eta Bizkaia'n bizkaie, reari indarra ta laguntasuna emoteko alegintzen da.

Euskalkiak galtzen ba'dira, euskera erri-maillan galdu dalako izango da. Eta ori jazoten ba'da-gure izkuntzea zarkien erakuste-etxerako baiño ez da izango balioko.

Batua ez da erri-maillara sartuko. Ori iñon be ez da jaso. Liburuetako batuaz batera bizi dira lurralde guztietan euskalkiak eta euskalki oso ezbarðiñak: Frantzia'n., Italia'n., Alemania'n, Txian, eta edonon.

Euskalkiak galdu ezkeru, euskera galdua da.

\* \* \*

Gauza egokia ta bearrezkoa da ba, euskalkiak erabiltea eta idaztea, edo Euskaltzaindiak zabalik itzi dauan ate estutik sartzeko, «euskalkiak aztartzea ta lantzea»

Orregaitik, Bizkaian sortu zan Alkarte au Gipuzkoa'ra ta Araba'ra be zabaldu da eta iru Alkarte onein izenean eroan genduan Bergara'ra gure agiria.

An izan giñan EUSKERAZALEAK geure eritxiak argi ta garbi agertzen.

Ez zan eroan lan sakon-sakonik, orretarako erarik ez genduan izan eta, baiña euskalkiai itzaltasun geiago izatea, gogotsu eskatu genduan eta zerbait lortu be bai uste dogunez.

\* \* \*

Eta zere Ez dogu gura EUSKERAZALEAK baturik?

Batua bai, batua bearrezkoa da, baiña euskalkiak kontuan dirala egingo dan batua, euskalki bakotxak dituan euskaldunen zenbakia kontuan dala egingo dana.

Eta batzuk egintzat daukan batu ori ez doa bide orretatik. Euskaldun gitxi dauken euskalki batzuk geiegi kontuan artzen ditu, esaterako iparraldekoak ortografirako, eta euskaldun asko dituanak, batez be gure bizkaiera, euskaldunik erdiak-inguru darabillena, baztertu egiten dau oso-osoon.

Olako batasun zapaltzaillea ezin geinke onartu, ezelan be, bizkaitarrak. Beste bat u bat egin bear da eta orretarako idazle-taldea izango da berbadun.

\* \* \*

Alderdi onetakoak agertu ziran, batez be, Bergara'n, EUSKERAZALEAK eta KARDABERAZ' tarrak.

Gitxi batzuk garala esan zan an, eta ori eritxia artu eikean, eurak eraturako Batzar nagusi aretan gitxi izan giñalako, eta eurak diran bestean zaratatsuak ez garalako.

Baiña ez gara talde txikiak: Mi lak bazkide ditugu EUSKERAZALEAK eta KARDABERAZ-tarrakaz batera bosteun bat idazle jatorrak eta ugariak.

Ez gara talde txiki bat, ixillean langille sendoak gara (gogoratu Larrakoetxea'ren, Onaindia'ren, Mokoroa'ren eta beste askoren lan sakon eta zabalak, ez aitzu laster omenaldia egingo dautsegun Lekuona'ren lan ikaragarria...

Baiña ez gara zaratatsuak. Ez dakit izan bear dogun be. Dana dala, emen gagoz.

EUSKERAZALEAK

---

## ZER DA

Eratzaillea? **Batzar bateko goraberak zuzentzen dituana: itza emon edo ukatu, gaia aldatu edo jarraitu, batzarra asi ta amaituteko zuzendariari eskatu...**

Oguztu? . **Agozkatu edo agoz ebagi. Berbea agoko otsez esan, aurrekoari adiazo.**

Egitaraua? **Ekintza bat aurrera eroateko erabiliko diran bideak edo arauak.**

Oroitzea? **Gomutapen edo aitzu barik goan diran gauzak adimen-aurrera ekartea.**

Kolkoa? **Arkondarearen eta bularraren bitarteko lekua, gaur lurrera sartzen dan**

**itxas-aldea izendatzeko erabilten da, ederazko «golfo de mar».**

Pentzua? **Ardura berezia. «Zure pentzuan dago gaurko jai guztia».**

Babesa? **Norbaiten edo zerbaiten jagole dana. Gaur «seguros» adierazteko erabilten da itz au, «semantika»ren zabalketea egiñaz.**

Antzerkia? **Teatroa. Jazoera bateri antza emoten dautsan egite izuna edo asmatua.**


Antzeztu? **Antzerkia jente-aurrean egin.**

Zarkia? **Gauza zarren artean dagozenetarikoa bat.**

Erakusta-etxea: **Balioko gauzak erakusteko, zar eta eder-lan lez batez be, eratzen dan etxea. Museoa.**

# ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



## 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS**   
**MUNICIPAL DE BILBAO**  
ONDO ERANTZUTEN DAU